

soldado nago,  
 gudari guztiak  
 Saibigainen  
 erori baitziren.  
 Nik  
 pentsatu nuen  
 orduan  
 Barrenkalle Barrenako Saibigainen  
 gudari gehiago erori dela  
 Urkiolako Saibigainen baino.  
 Baina ez nion esan,  
 gazteriak fedea  
 behar baitu,  
 eta gainera  
 nik esperantzarik,  
 federik  
 edo  
 karitaterik  
 eztaukadalako.  
 Merke erosi zuen  
 Kristok  
 kristau herria.  
 Eta hala ere  
 Kristo  
 Golgotan hil bazen ere,  
 munduko bazterretan  
 poetak daude  
 oraindik.

## 24.— RAFAEL, EZ SANZIO, RUIZ BALERDI

Leonardok ez balu pintatu  
 Giocondaren irri urrutia,

Michelangelok utzi balu  
 bere Sibila  
 sudur gabe,  
 Diego Velázquezek erantzi bailitu  
 bere Maestate, Gaztelako  
 erregearen  
 zangoetatik  
 galtza-erdiak,  
 eta jautsi balira  
 Sena-ondoko,  
 Tiber-ondoko,  
 Manzanares-ondoko  
 haurretara,  
 ez ziren izanen  
 ez Leonardo,  
 ez Michelangelo,  
 ez Velázquez,  
 ezpada Ruiz Balardi.  
 Zeren honen burua  
 ez den hain ongi koadratzen  
 administrazio-kontseiluetakoa  
 jeometria errektilineoan  
 eta haren mintzaera  
 arrotz egiten baita  
 kontseilari jaun prudenteen belarri zuhurretan.  
 Hobeki ikusten da  
 Herrerako eskola nazionallean  
 edo  
 Amezketako ikastolan,  
 nola bertan ikasten dute  
 umeek  
 zer aldi dagoen ferdetik gorrira,  
 mugimentuen eta masen direkzioa.  
 Rafael, ez Sanzio, Ruiz Balardi  
 bat egiten da herriarekin  
 nola gatzia eta ura

euskaldunen itsaso amaigabea.  
 Rafael, ez Sanzio, Ruiz Balerdi  
 eta harekin  
 Oteitza Enbil,  
 Txillida Juantegi,  
 Ibarrola Goikoetxea,  
 Zumeta,  
 Mendiburu,  
 gure etorkizunen esperantza bizia,  
 burjesiari bizkarra,  
 herriari aurpegia,  
 Euzkadiko artistak,  
 gure etorkizunaren esperantza bizia,  
 gure presentearen errealtate finkoa,  
 gure pasatuaren arguila bakarra.  
 Zuek,  
 Euzkadiko artistak,  
 hainbeste sufritzen duen  
 herriaren  
 hitzik gabeko  
 boz ozena:  
 Rafa Balerdi...  
 Eta naikoa da.  
 Hau diot  
 Usurbilen

Sabinoren denborako  
 ehun eta hamar  
 garren  
 urtean.

## 25.— ZEREN LEO

Zeren Leo bar Dabit  
 ez baitzen hil  
 hamasei urte berantago  
 Mexikon,  
 Zesarrek  
 asasina-erazia.  
 Zeren Leo bar Dabit  
 hamasei urte lehenago  
 hil baitzen,  
 Zesarren jaia-lurrean,  
 mendi kaukasikoetan,  
 1924 urteetako  
 urtarril  
 haretan.  
 Hala ere  
 (eta horregatik),  
 Leo bar Dabiti  
 bere lekua zor zaio  
 nagusiaren alde-alde-alderean  
 aldarean.  
 Leo bar Dabitek  
 erreboluzionario guztion  
 obligazioa  
 kunplitu baitzuen:  
 Egin zuen  
 erreboluzioa.  
 Erreboluzio sobietikoa.